



Nahia Rodriguez Etxeandia  
Maite Gonzalez Mentxakatorre  
Aixerrota BHI, 15-16

## AURKIBIDEA

Lander Garro .....	3
Sarrera .....	3
<i>Gerra Txikia</i> .....	3
• Kokapena .....	3
• Gaia .....	3
• Argumentua .....	3
• Istorioa .....	4
• Pertsonaiak .....	4
• Egituraketa .....	5
• Baliabideak .....	5
Iritzia.....	6
Bibliografia eta webgrafia.....	7

## **LANDER GARRO**

Lander Garro (Orereta, Gipuzkoa, 1975eko azaroaren 25a) euskal idazlea eta argazkilaria da. Bere lehenengo eleberria, "Kontrarioak", 2010ean argitaratu zen. Bere azken nobela, Susak 2014ean argitaratua, *Gerra Txikia* da. Gaztea zenean, "Y" izeneko talde baten kidea izan zen eta talde horrek, ETAko kideak laguntzeko asmoz hainbat jarduera bortitz burutu zituzten. Adibidez, autobus bat erre zuten Gipuzkoan 1997an.

## **SARRERA**

80ko hamarkadaren hasieran Hego Euskal Herritik Iparraldera ihes egin zuten herritar askok. Familia horietako istorio bat kontatu du Lander Garrok. Idazleak Xabi Ugarte haurraren ikuspegia erabiliz kontatu du istorioa. Gainera, liburu hau idazleak berak txikitan bizi izandako egoera bat gainditzeko modua izan da. Izan ere, bere haurtzaroan Bixente Peruren errefuxiatu zen heriotza bizi izan zuen era horrek eragin handia izan zuen Garroengan.

## ***Gerra txikia***

### **KOKAPENA**

Istoriaren hasieran Ugarte familia Oreretan (Gipuzkoa) bizi da, baina Jose Mari Ugarte (Xabiren aita) Iparraldera erbesteratu zuten eta errefuxiatu bezala bizi da. Ondorioz familia guztia Iparraldera alde egingo du eta bertan garatuko da istorioa, Hendaian hain zuzen ere.

### **GAIA**

GALen garaian, euskal errefuxiatu baten familiak Hendaia egindako bidaia eta bere bizimodu edo egoera berria.

### **ARGUMENTUA**

Xabiren bizitza hankaz gora ipintzen da bere aita errefuxiatua delarik, bilaka ari direnean. Baina, familiaren laguntzaz, Hendaian bizitza berri bat eraikitzen hasten da bere urteko mutiko batek dituen ekintzak barne. Hala nola, lagun berriak egiteko nahia, maitasunak sortzen dizkion sentimendu berriak, lagun baten hilketak GAL taldearen eskutik...

Protagonistaren aita atxilotuta Madrilera eramaten dute, baina zorte onez, atxilotu eta handik denbora gutxira askatu egingo dute, baldintza batekin, Hendaia bueltatzea debekatua du. Beraz, Xabi bakardadean bizi behar da kurtsoa amaitzeko eta berriro ere bere herrira, Oreretera, bueltatzeko.

## ISTORIOA

Jose Mari Ugarte Iparraldean errefuxiatu dago ETAkidea izateagatik. Bere familia Oreretan bizi da eta egun batean Xabiren amak, Xabiri, bere arrebari (Nagore) eta bere anaiari (Gotzon), Hendaiara bisita bat egitera joan behar direla komunikatzen die. Ondorioz, tren hartu eta heldu bezain laster Emilioren (famiaren lagun bat) etxean lotan gelditzen dira. Ondoren, gurasoek umeei komunikatzen diete ikasturtea amaitzean Hendaiara bizitzera joango direla. Hasieran, ez dute etxebizitza finkorik eta Emilioren etxean geratzen dira.

Familiak etxe bat alokatzen du. Hondartzan, Xabik Oihana izeneko neska ezagutzen du eta gainera, Xabi eta Manu (auzokidea) lagun egiten dira. Hala ere, GALen garaia denez, aitaren lagun bat erail egiten dute eta, ondorioz, manifestazio bat egiten dute. Xabi ikastola hastean, familia berriz ere, etxez aldatu egiten da Martinen etxera. Zoritxarrez, Martin eta Joxemari haserretzen dira eta, horregatik, etxez aldatzen dira, baina oraingoan, beraientzako etxe propioa alokatzen dute.

Etxe berrian egun batzuk egon ondoren, familiak Txominen hilketaren berri izaten du eta horren ondorioz, Xabik eta Nagorek Pailazo Hiltzaileen erakunde armatua sortzen dute. Geroago, Jokin errefuxiatu bat heltzen da famiaren etxera.

Familiarekin ondo konpontzen da, eta Xabiri ikasketekin laguntzen dio. Era berean, Xabik anaiarekin harremana estutzen du eta egun batean kontzertu batera joaten dira. Han Xabik bere lehen musua eman eta alkohola lehen aldiz probatzen du. Osabaren bisitaren ondoren, poliziak Ugarten etxean sartu, Joxemari atxilotu eta Madrilgo kartzelara eramaten dute. Oihanaren, Xabik gustuko duen neska, aita ere atxilotzen dute eta ondorioz, familiak aita bisitatzera joan behar du Madrilera. Handik eta gutxira polizak ama eta Manu (errefuxiatu bat) kuartelera eramaten dituzte, baina ama libre geratzen da.

Handik eta hilabete batzuetara Jose Mari kartzelatik ateratzen da, baina ezin da Hendaiara bueltatu, beraz, Oreretara itzultzen dira. Bitartean Xabik, Nagorek eta Gotzonek kurtsoa amaitu arte itxaron behar dute eta tarte horretan internatu batean bizi dira. Kurtsoa amaitu eta gero, beraien gurasoekin batzen dira.

## PERTSONAIAK

Eleberri honetako pertsonaia garrantzitsuenak Xabi eta bere senideak dira.

**Xabi Ugarte.** Berau da istorioan protagonista. Mutil arrunta baina nahiko lotsatia da eta askotan gurasoen babesa bilatzen du, adibidez, oheran txiza egiten duenean amarengana doa laguntza eske. Hala eta guztiz ere, historia aurrera joan ahala, independenteagoa bilakatzen da eta hausnarketak egiten hasiko da, hala nola, Oihanarekiko sentimenduak ez adieraztea erabakitzen duenean. Bestetik, adinari dagokionez ez da ondo zehazten, baina hasieran zortzi-bederatzi urte dituela ondorioztatu daiteke. Horregatik da hain nabarmena pertsonaia honen bilakaera heldutasunaren bidea hasten duelako.

**Gotzon Ugarte.** Xabiren anaia nagusia da. Punki egiten da eta anarkismoaren ideologia bereganatzen du eta hori ez da bere gurasoen gustukoa izango. Hasieran, Xabirekin duen harremana ez da oso ona baina denborarekin harremana estutzen dute eta Xabierren konplize bihurtzen da; esate baterako, bi anaiak kontzertura doazenean alkohola lehen aldiz dastatzen duenean.

**Nagore.** Xabiren arreba, oso pertsona alaia da. Xabirekin oso harremana ona dauka eta horregatik Pailaso Hiltzaileen taldea sortuko dute.

**Jose Mari Ugarte.** Xabiren aita da eta Lapurdin bizi da ETako kidea izateagatik. GALeko garaia dela eta, aita beldurrez jota, seme-alabekin gero eta petralagoa da, ondorioz, eleberri osoan pertsonaia urruna izango da. Hendaian urte batzuk igaro eta gero, polizia atxilotu eta Madrilgo kartzelara eramango dute.

Xabiren ama, nobelan zehar handitzen joango den pertsonaia da, emakume sendoa delako eta beti aurrera egiteko bidea aurkitzen duelako. Xabik asko miresten du eta gehienetan bere babesa bilatuko du.

Azkenik, istorioan zehar garrantzi gutxiagoko pertsonaiak agertzen dira, hala nola: Txomin, Jose Mariren laguna, Eneko, Xabiren laguna, Oihana, Xabik lehenengo gustuko duen neska, Manu, auzokide erefuxiatua, Maider eta Ainara, Txominen alabak, Isabelle Xabiren amaren laguna...

## EGITURAKETA

*Gerra txikia* 293 orrialde (bertsio inprimatuan) eta 61 pasarte dituen eleberria da (Susa, 2014). Ekintzak linealki gertatzen dira, hau da, bata bestearen ondoren. Hala ere, zenbait kasutan *flash back*-ak egiten dira oroitzapenak edo aurreko gertaera batzuk kontatzeko.

## BALIABIDEAK

Idazleak, hainbat baliabide lantzen ditu eta horietako batzuk oso nabarmenak dira:

Lehenik eta behin, narratzaile orojakilea erabiltzen du, beraz, pertsonaiei buruz dena daki eta beraien barne sentimendu guztiak ezagutzen ditu. Esate baterako, irakurleak jakin dezake Xabi nola sentitzen den une oro:

*Kontzertuaren ondoren, Oihanarekiko sentimenduak aldatuta zeuzkan, gainera. Jada ez zen ura ikustearekin asetzen. Desioa ate joka sentitzen zuen...*

Pasarte horretan argi ikus daiteke narratzaileak Oihanarekiko sentimenduak ezagutzen dituela; hau da, ez du soilik ikusten duena kontatzen, baita pertsonaiek sentitzen dutena ere.

Bestetik, lehen aipatu den moduan, hirugarren pertsonan idatzita dago baina narratzaileak dena Xabierren ikuspuntutik kontatuko du. Beraz, erabil dezakeen hiztegia nahiko murriztua, ume baten ezagutza garatzen dagoelako. Hala ere, modu

batean edo bestean, umearen ikuspuntutik azaltzen dira ekintza ezberdinak eta hortik idazleak bere hausnarketa pertsonala egiten du. Adibidez, Xabi bere amaren logelara sartzen denean Jokinekin ikusten du pasaporte faltsu bat egiten. Hortik umeak ezin dezake ondorio zentzudun bat atera (Xabi ume bat delako); hala ere, irakurleak errefuxiatuen egoera ezagutzen duenez, Jokin eta Xabiren ama egiten ari direna ondoriozta dezake.

Gainera, eleberri osoan hainbat baliabide estilistiko aurkitzen dira, esate baterako, zenbaitetan metaforak erabiltzen ditu; adibidez:

*Berriz esnatu zenean normala heltzen zitzaion haize eta ahoan zeukan maskarak traba egiten zion, baina han ez zegoen inor.*

*Akordu gozoak ziren horiek guztiak, "odol putzu gero eta handiagoak" utzitako gau ilun hartan.*

Elkarrizketa ugari daude eleberrian eta, askotan, pertsonaiak hobeto ezagutzeko balio dute. Izan ere, pertsonaiak mintzatzean euren izaera adierazten dute esaten dutenaren arabera.

*—Ez da jantzitegia, biltegia da! —garrasi egin zuen Xabik.*

*—Apaldu ahotsa, Xabi —esan zuen aitak sukaldetik.*

*—Baina... eta gure gauzak? —angustia nabari zitzaion Nagoreren bozari.*

Beste kasu batzuetan, ordea, soilik informazioa gehitzen dute egoera bati buruz, adibidez.

Era beren, deskribapenak ere ugariak dira. Horiei esker, pertsonaiak nolakoak diren jakin daiteke baita lekuak edo paisaiak ere.

*Itsasoan hormigoizko eraikin beltz bat ikusten zen, bunker hitzak iragartzen zuen ikuskizunaren aldean nahikoa txikia eta etsigarria...*

Azkenik, hizkuntzari dagokionez, nahiko naturala da, izan ere, hiztegi ulergarria erabiltzen du. Zenbait kasutan, ordea, beste hizkuntza batean dauden hitzak txertatzen ditu, frantsesez hain zuzen ere (*Voilà, nous sommes arrivées à l'Espagne*).

## **IRITZIA**

Lehen aipatu bezala, *Gerra txikia* eleberriak hainbat ezaugarri berezi ditu, baina dudarik gabe deigarriena gaiari dagokio.

Alde batetik, euskal errefuxiatuen gaia modu egokian planteatzen du, hau da, Xabiren familiaren historia kontatzen du eta horretaz baliatzen da gaia horrelako egoera bat deskribatzeko. Izan ere, hainbat familia bizi izan zuten Xabik bizi izan duena eta horrek istorioa askoz deigarria egiten du, errealitatean eta bizipen errealean oinarritzen delako.

Bestetik, narrazioa autobiografiako dela esan daiteke. Lander Garrok, gazte zenean, antzeko bizipen bat eduki zuen; hain zuzen ere, Bixente Perurenaren heriotza. Senideentzat oso gogorra izan zen gertaera hori, baina betez ere, idazlearengan eragin handia izan zuen eta hori argi eta garbi ikus daiteke istorioan. Adibidez, Txomin pertsonaiaren hilketak gertatzen denean, zehatz-mehatz deskribatzen du ingurukoek sentitzen duten beldurra eta horrek irakurlea guztiz hunkitzen du.

Azkenik, aipatzekoa da, eleberraren kokapen kronologikoa. sarritan, gehienek ahaztu egiten dute frankismoa eta gero etapa garrantzitsu bat bizi behar izan zela. 90eko hamarkadan hain zuzen, atxiloketa ugari egon ziren eta euskaldun askok alde egin behar izan zuten tentsio politikoengatik, horien artean, ETAko kideak zirenak, haiei laguntzen zietenak... *Gerra txikia*, beraz, aurreko egoera horretan oinarritzen da eta hortik abiatuta errefuxiatu horiek bizi izandakoa kontatzen du; gainera GAL (Grupos Antiterroristas de Liberación) delakoa txertatzen du, ETAko kideen aurkako atentatuak burutzeko antolakuntza parapoliziala izan zena. Hortaz, lantzen duen gaia oso garrantzitsua da; izan ere, oraindik ez da garbi geratu nortzuk izan ziren Espainiako Gobernuan talde horien arduradun nagusiak eta gaurko egoera politikoan oraindik ere eragiten duen gaia izaten jarraitzen du.

Aurreko guztia dela eta, obra oso aproposa da kulturalki Euskal Herriko bilakaera politikoa hobeto ezagutzeko. Gainera, umearen inozentziaz baliatzen da istorioa kontatzeko eta, ondorioz, irakurlea da, hausnarketak egin behar dituen eta horrek narrazioaren ildo jarraitzera bultatzen du.

## **BIBLIOGRAFIA**

*Gerra txikia*, Lander Garro. Susa, 2014.

## **WEBGRAFIA**

[https://eu.wikipedia.org/wiki/Lander\\_Garro](https://eu.wikipedia.org/wiki/Lander_Garro)

<http://www.atalak.eus/ikasgela/nola-egin/il-gida/index.html>

<http://atalak.eus/ikasgela-materialak/il-hiztegitxoak/eleberrak-bilduma/gerra-txikia/gerra-txikia.jpg>

<http://zubitegia.armiarma.eus/?i=670>

[http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/hizt\\_el/index.asp](http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/hizt_el/index.asp)

<http://www1.euskadi.net/harluxet/>

<http://www.armiarma.eus/emailuok/?p=5502>